

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

53/2016 Foru Agindua, martxoaren 7koa, "Becerro de Bengoa" XXVIII. saiakera sarirako deialdia onartzen duena

Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, literatura arteak sustatzeko garatzen dituen ekintzen artean, egoki iritzi dio "Becerro de Bengoa" XXVIII. saiakera sarirako deia egiteari.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. "Becerro de Bengoa" XXVIII. saiakera sarirako deialdia onartzea, bi hizkuntza modalitatetan: euskaraz eta gaztelaniaz. Horietako bakoitzean 4.000 euroko saria emango da.

Bigarrena. Deialdi hau arautuko duten oinarriak onartzea. Oinarri horiek espedienteari erantsita daude.

Hirugarrena. Gastu hori Arabako Foru Aldundiaren 2016ko gastuen aurrekontuko 70.1.05.73.02.226.09.06 partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 105.966) egingo da.

Laugarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoaren 7a

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua

IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE

"Becerro de Bengoa" XXVIII. saiakera saria

Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak "Becerro de Bengoa" XXVIII. saiakera sarirako deia egin du.

Oinarriak

1.- Sari honetara edozein pertsona fisiko aurkez daiteke, edozein dela ere bere nazionalitatea edo bizilekua.

2.- Bi hizkuntza modalitate ezarri dira: euskara eta gaztelania. Lan bakoitza bi modalitate hauetako bakar batera baino ezin daiteke aurkeztu.

3.- Saiakerak 100 orrikoak izango dira gutxienez eta 150 orrikoak gehienez, inprenta letraz (Arial 12 edo antzekoa) idatziko dira, eta lerro artean espazio bikoitza utziko da. Lanak jatorrizkoak izango dira, inoiz argitaratu gabeak eta aurretik beste lehiaketa edo sariketa batean inolako saririk jaso gabeak.

4.- Lanen bi ale aurkeztuko dira, sinatu gabe, eta horietako bakoitzean izenburua eta izen-goitia besterik ez dira jarriko. Horiekin batera gutun azal itxi bat aurkeztuko da, barruan honako hauek jasoko dituen: egilearen izen-abizenak, NANaren fotokopia edo, atzerritarra izanez gero, horren baliokidearen fotokopia, helbidea eta telefonoa; eta gutun azalaren kanpoaldean izenburua, izen-goitia eta zein saritara aurkezten den zehaztuko dira. Saritutako lanei dagozkien gutun azalak baino ez dira irekiko.

Era berean, lanarekin batera hirugarren oinarria betetzen dela egiaztatzen duen zinpeko aitortpena aurkeztuko da, hau da, saiakera lana argitaratu gabekoa dela eta beste lehiaketa edo sariketa batzuetan inolako saririk jaso ez duela egiaztatzen duen aitortpena. Zinpeko aitortpen hori gutun azalaren barruan sartuko da esandako datu pertsonalekin batera.

5.- Lanak Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailean aurkeztu edo hara bidali beharko dira (Probintzia plaza 5, 3. solairua, 01001 Gasteiz). Kanpoaldean "Becerro de Bengoa saiakera saria" jarri beharko da.

Lanak aurkezteko epea 2016ko irailaren 2an bukatuko da. Egun horren ostean, zigilu marka ikusita epe barruan bidali zirela egiazta daitezkeen lanak baino ez dira onartuko.

Saila ez da izango gerta litezkeen jatorrizko lanen galeren edo narriaduren erantzule, ezta atzerapenena edo postetxeari zein hirugarrenei egotz dakiekeen beste edozein inguruabarrena ere, lanen bidalketei eragiten dietenean.

6.- Saria 4.000 eurokoa izango da modalitate bakoitzerako. Zenbateko horri dagokion atxikipena egingo zaio.

7.- Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak izendatutako epaimahai kalifikatzaileak hartuko du erabakia, eta dagokion gutun azala irekita ezagutaraziko du.

Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 20.5. artikuluan xedatutakoa betez, sari hau emateko sortutako epaimahaiak emakumeen eta gizonen osaera orekatua izango du, eta eduki beharreko gaikuntza, gaitasuna eta prestakuntza edukiko dute kideek. Lege horren beraren arabera, ordezkaritza orekatua dela ulertuko da, baldin eta lau kide baino gehiagoko epaimahai eta antzeko organoetan bi sexuek gutxienez ehuneko 40ko ordezkaritza badute; gainerakoetan, bi sexuak ordezkaturata badaude.

8.- Epaimahaiaren erabakiaren aurka ezin izango da gora jo. Erabakia epaimahaikideen gehiengo soilaz hartuko da, eta epaimahaiak izango du eztabaidetan sortzen diren gorabehera guztiak ebazteko ahalmena.

9.- Sariak eman gabe gelditu daitezke, epaimahaiak hala erabakitzen badu.

10.- Saritutako lanak argitaratu ahal izango ditu Arabako Foru Aldundiak.

11.- Epaimahaiak saria nori eman erabaki eta hurrengo egunetik aurrera, hogeita hamar egun egongo dira saritu ez diren lanak jasotzeko. Esandako epean ez badira lanak jasotzen, deuseztatu egongo dira.

12.- Deialdi honetan parte hartzen dutenek deialdian adierazitako baldintzak onartzen dituzte eta berariaz men egiten diete baldintza horiei.

13.- Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak baino ez du deialdian sor edo ager daitezkeen auzi guztiak ebazteko eskumena.

Indarreko araudia aplikatuko da, eta, zehazki, gizonen eta emakumeen berdintasunaren arau esparrua, Euskal Autonomia Erkidegoko otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan jasotakoa.

14.- Gastu hau Arabako Foru Aldundiaren 2016ko gastuen aurrekontuko partida honen kontura egingo da: 70.1.05.73.02.226.09.06 ("Kultura sorkuntza eta jarduerak suspertzea").